

UDALBATZA OSOA.

Bilkura-akta

Ohiko bilkura

Data: 2016ko martxoaren 9a, asteazkena.

2016ko apirilaren 13an akta onesteko bilkuran egindako oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, adierazitako egunaren 20:00etan, honako zinegotzi jaun-andre hauek bildu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Luis Felipe Campos Latre (PP), Dolores Ruiz Zuazo (PP), Diana Rubio Lafuente (PP), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE). Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna da bilkuraren buru.

Bertaratu ez diren zinegotziak: Agustín Hervías Salinas (PP).

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra da bilkurako idazkari.

Alkate-udalburu jaunak deitu du bilkura, alde zuzenetik eta arauzko publikizitatearekin. Honako hau da

Aztergaien zerrenda

1. Onestea 2016ko otsailaren 10ean eginiko ohiko bilkurako akta.
 2. Dekretuak eta alkatetzaren ebazpenak.
 3. **Kultura, Turismo, Jaiak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Informazio Batzordea.**
 - 3.1. Bide publikoan mahai, aulki eta mahaitxoak jartzea arautzeko ordenantza.
 4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Informazio Batzordea.**
 5. **Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Informazio Batzordea.**
 - 5.1. Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Europako udalerrien erakunde-adierazpena.
 6. **Ekonomia, Ogasuna, Enplegua eta Hirigintza Batzordea.**
 - 6.1. Udal-espazioen garbiketa-zerbitzuaren kudeaketa-agindua.
 - 6.2. Igerilekuen zerbitzu-kontratua.
- Azken puntua. Galderak eta eskaerak.

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorritik, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira.

1. Onestea 2016ko otsailaren 10ean eginiko ohiko bilkurako akta.

Alkate-udalburu jaunak aktari oharrik egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei.

Ez da oharrik egin.

Hau erabaki da:

1) 2016ko otsailaren 10ean eginiko bilkurako akta onestea.

Aldeko botoak: 10 (hamar): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), Dolores Ruiz Zuazo (PP), Diana Rubio Lafuente (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

2. Dekretuak eta alkatetzaren ebazpenak.

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, Alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki, aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenak: 2016ko 29/16tik 47/16ra bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

3. Kultura, Turismo, Jaiak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Informazio Batzordea.

3.1. Bide publikoan mahai, aulki eta mahaitxoak jartzea arautzeko ordenantza.

Villanueva Gutiérrez jn.: Aurrerapen gutxiarekin bidali bada ere, ordenantza aztertu dugu eta zenbait zalantza ditugu. Adibidez, 5.3 puntuan alboko babesek mugikorak, gardenak edo opakuak izan beharko dutela esaten da. Kontraesan bat dirudi arauak esatea gardenak edo opakuak izan daitezkeela. 6.4 artikuluan, Udalari eskubidea ematen dio bide publikotik higigarriak kentzeko, adibidez, jarduera kulturalak, zibilak edo sozialak egiteko, baina ez da arautzen ea kalte-ordainik planteatzen den. Erregimen zigortzaileari dagokionez: Nork salatuko du zigortu ahal izateko? Ez badago aguazilik...

Campos Latre jn.: Ordenantza honen interesdunak ostalariak dira eta jakinarazi egin beharko litzaieke.

Alkate jn.: Ordenantza-proiektua jakinaraziko diegu tabernen lizentzien titulardunei eta sortutako zalantzak ebatziko ditugu alegazioak egiteko aldian.

Aurrekariak:

- 1) Bide publikoan mahai, aulki eta mahaitxoak jartzea arautzeko ordenantzaren hasierako onarpen-espeditentia.
- 2) Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikulua aplikatu behar da.
- 3) Udal-jabetza publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendua egiteagatiko tasa arautzen duen zerga-ordenantzaren aldaketa behin-behinean onartzeko espeditentia; bereziki, ordenantza horren C epigrafea, irabazi-asmoz erabilera publikoko lursailak aulki, mahai eta mahaitxoekin okupatzeari buruzkoa.
- 4) Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 44/1989 Foru Arauaren 15. eta 16. artikulua eta 44/1989 Foru Araua aplikatu behar dira.

Hau erabaki da:

1. Bide publikoan mahai, aulki eta mahaitxoak jartzea arautzeko ordenantzaren hasierako onarpen-espeditentia hasieran onartzea.
2. Udal-jabetza publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendua egiteagatiko tasa arautzen duen zerga-ordenantzaren aldaketa behin-behinean onartzea; bereziki, ordenantza horren C epigrafea, irabazi asmoz erabilera publikoko lursailak aulki, mahai eta mahaitxoekin okupatzeari buruzkoa.
3. Erabakia jendaurrean jartzea iragarki bat txertatuz Udalaren iragarki-oholean eta Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean.
4. Gaiak eragiten dien negozioen titularrei banan-banan jakinaraztea.
5. Ebazpen hau behin betikotzat hartzea, erreklamaziorik aurkeztu ezean. Behin betiko onarpenaren akordioak argitaratzea arauak ezarritako moduan eta epean.

Aldeko botoak: 10 (hamar): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), Dolores Ruiz Zuazo (PP), Diana Rubio Lafuente (PP), José

Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Informazio Batzordea.

5. Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Informazio Batzordea.

5.1. Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Europako udalerrien erakunde-adierazpena.

Eslava Guillerna andreak Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Europako udalerrien erakunde-adierazpena irakurri du gaztelaniaz eta euskaraz. Testuak hau dio hitzez hitz: Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluko (CCRE-CEMR) Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasuna Tokiko Bizitzan Sustatzeko Batzorde Iraunkorrak adierazi du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna funtsezko eskubidea eta oinarritzko balioa dela demokraziarentzat. Tokiko eta eskualdeetako gobernuak herritarrengandik gertuen dauden esferak dira, eta, hortaz, esku-hartzerako maila garrantzitsuak dira oraindik ere dirauten desberdintasunei aurre egiteko eta emakumeen eskubideak Europan eta mundu osoan sustatzeko.

Emakumeen Nazioarteko Egun honetan, 2016ko martxoaren 8an, tokiko eta eskualdeetako gobernuen ordezkariak helburu hauen inguruan elkartu dira:

- Gogoratzea demokrazia ezin eraiki daitekeela emakumerik gabe, eta, horrenbestez, beharrezkoak diren neurriak hartu behar direla, maila guztietan (tokikoa, eskualdekoa, estatukoa eta Europakoa), emakumeek eta gizonek parte-hartze berdina izan dezaten erabakiak hartzeko prozesuetan.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gure balioen eta europar gizartearen oinarritzko elementua dela bermatu dezatela eskatzea estatuetako gobernuei eta Europako instituzioei; beraz, elementu horrek agenda politikoaren erdigunean egon behar du, eta politika eta lege garrantzitsu guztietan txertatu behar da.
- Berdintasunaren aldeko konpromiso formal bat hartu dezatela eskatzea Europako hiri eta eskualde guztiei, CCRE-CEMRk 2006an plazaratu eta dagoeneko 1.500 hiri eta eskualdek baino gehiagok sinatu duten Tokiko Bizitzan Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna Lortzeko Europako Gutuna sinatzearen bidez.
- Berdintasuna eskualde eta toki mailan sustatzeko neurri politiko konkreituak hartu ditzatela eskatzea gutunaren sinatzaileei, CCRE-CEMRk behatoki horren bidez eskura jartzen dituen tresnak erabiliz, estatu bakoitzean tokiko eta eskualdeetako gobernuei ematen zaizkien botereen arabera; eta horren inplementaziorako beharrezkoak diren finantza eta giza baliabideak eskaini ditzatela.
- Emakumeek XXI. mendean pairatzen jarraitzen duten indarkeria salatzea: bizitza pribatuan zein publikoan emakumeen aurka zuzentzen den indarkeria forma guztiei aurre egin behar zaie eta ezabatu egin behar dira, honako forma hauek barne sartuta: emakumeen trafikoa, sexu-esplotazioa, etxeko indarkeria eta giza eskubideak urratzen dituzten gainerako ekintza guztiak.
- Genero-indarkeria prebenitzeko eta horren biktimak babesteko eta laguntzeko politika eta lege bateratuak sortu ditzatela eskatzea estatuetako gobernuei eta EBko instituzioei. Emakumeen indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbulgo Hitzarmena) berretsi dezatela eskatzea gobernu nazionalai.
- Kontuan hartzea gerra eta jazarpenetik ihes eginda gure hiri eta udalerrietara iristen diren errefuxiatuen artean dauden emakume eta haurren behar espezifikoak; beharrezko harrera eta arreta ziurtatzea, eta era guztietako indarkeria eta diskriminazioa eragozte.

Pleno del Ayuntamiento; Acta de sesión 9 – III – 2016;

- Maila globalean elkarlanean aritzeko borondatea erakutsi dezatela, Nazio Batuen Erakundearen 2030eko Agendaren 5 Helburuak lortzeko begira, horrek xedetzat hartzen baitu emakumeen aurkako diskriminazio forma guztiak ezabatzea.

Gamarra jn.: Urteko egun guztiak dira emakumeen eguna; ez dadila geratu soilik agerian eramateko papar-hegalean txapa bat jartzen dugun egun honetan.

Villanueva Gutiérrez jn.: Lotsagarria da oraindik ere emakumeen egun bat ospatu behar izatea.

Pertsonen eguna ospatu beharko litzateke..

Campos Latre jn.: Adierazpena ondo iruditzen zaigu eta onartzen dugu.

Alkate jn.: Egia da pena dela XXI. mendean ekimen hauek proposatu behar izatea.

Adierazpenarekin batera, tokiko bizitzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako

Europako gutunari ere atxikitzeko eskatu nahi dizuet. Horrela bada, gutuna sinatuko dut.

Aurrekariak:

- 1) Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Europako udalerrien erakunde-adierazpena.
- 2) Tokiko bizitzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Europako gutuna; dokumentu hori Europako Udalerrri eta Eskualdeen Kontseiluak egin du.

Hau erabaki da:

- 1) Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Europako udalerrien erakunde-adierazpena onartzea.
- 2) Oyón-Oion udalerria tokiko bizitzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Europako gutunari atxikitzea onartzea; dokumentu hori Europako Udalerrri eta Eskualdeen Kontseiluak egin du.
- 3) Eduardo Terroba Cabezón alkateari baimena ematea gutun hori sinatzeko.

Aldeko botoak: 10 (hamar): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), Dolores Ruiz Zuazo (PP), Diana Rubio Lafuente (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

6. Ekonomia, Ogasuna, Enplegua eta Hirigintza Batzordea.

6.1. Udal-espazioen garbiketa-zerbitzuaren kudeaketa-agindua.

Alkate jn.: INDESA Arabako Foru Aldundiak sortutako enpresa bat da eta Oiongo Udalari zerbitzuak eskaintzen dizkio duela 20 urtetik baino gehiagotik. 2010az geroztik Oyón-Oiongo Udala INDESAREN bazkidea da. Sozietatearen helburu soziala enplegu-aukerak sortzea da, kalitatezkoak eta iraunkorrak direnak gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren arloan, Arabako desgaitasuna duten pertsonentzat, laneratzea eta gizarteratzea lortzeko bitarteko gisa, Enplegurako Zentro Berezi bezala beti. INDESAREN helburu soziala da gizarteari zerbitzu hauek eskaintzea: eraikuntzen garbiketa, egoitza edo ospitaletako jantziak garbitzea, eremu berdeen mantentze-lanak egitea... INDESAK, bere estatutuetan jasotako erregimen juridikoarekin bat etorruta, Administrazio Publikoek agindutako neurrian, lan horiek egin beharko ditu. Administrazio horiei dagokienez, bitarteko instrumentala eta zerbitzu tekniko da. Batzordeetan jakinarazi den moduan, INDESA 2010 SL sozietateak Udalari zerbitzuak eskaintzeko formula kudeaketa-agindua da. Garbiketa-sektoreko enpresekin prezioak alderatu ditugu eta baldintzak onuragarriak dira, INDESAREN fakturazioa areagotu egingo den arren; izan ere, ohartarazi du fakturatzen ez zituen zenbait prestazio eskaintzen zituela.

Villanueva Gutiérrez jn.: Ikastetxearen eta udaletxearen garbiketa SERECOREkin kontratatzea hanka-sartze bat izan zen. Zer zentzu zuen kontratu horrek Udalak parte hartzen zuen enpresa bat baldin bazegoen?

Alkate jn.: Bestalde, udal-igerilekuaren eta beste kirol-instalazio batzuen zerbitzua kontratatzean, kirol-eremuen garbiketa ere sartu da; hortaz, INDESAk eskaintzen dituen prestazioak aldatuko dira.

Aurrekariak:

- 1) 2016ko otsailaren 29ko Hitzarmena, udal-espazioen garbiketa-zerbitzua eta mantentze-lanak eta kontserbazioa eskaintzeko kudeaketa-agindua eratzen duena.
- 2) Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 12.1 artikulua aplikatuko da. Honako hau dio: Eskumenari ezin zaio uko egin, eta eskumena berena duten administrazioeko organoek baliatuko dute, baldin eta, lege honetan zein beste batzuetan ezarritako moduan, eskuordetzan ematen ez bada edo goragokoak eskumena bereganatzen ez badu. Kudeatzeko gomendioak, izenpea eskuordetzan emateak edo ordezkotzak ez dute eskumenaren titulartasuna aldatzen; aldatzen dituzte, ordea, eskumen horretaz baliatzeko kasuan-kasuan aurreikusten diren elementuak.

Hau erabaki da:

- 1) INDESA 2010 SL sozietatearekin hitzarmen bat izenpetzea onartzea, udal-espazioen garbiketa-zerbitzua eta mantentze-lanak eta kontserbazioa eskaintzeko kudeaketa-agindua eratzen duena, honako baldintza hauen arabera. Aginduaren prezioa ez da 109.872 euro baino handiagoa izango. Zenbateko hori hileroko fakturatuko da urteko zenbateko osoaren hamabirenetan, eta ez du BEZik izango, ez baitago BEZera atxikita. Kontratuaren iraunaldia 1 (bat) urtekoa da. Agindua luzatu egin ahal izango da. Luzatzeko, bi aldeek berariaz erabaki hori hartu dutela adierazi beharko dute, kontratua amaitu baino 2 (bi) hilabete lehenago gutxienez.
- 2) Baldintzak, alderdi teknikoak eta agindutako zereginen maiztasunak onartzea; horiek udal-teknikariak gainbegiratu beharko dituzte (aginduari erantsi zaizkio).
- 3) Eduardo Terroba Cabezón alkate-udalburua gaitzea hitzarmena formalizatzeko.
- 4) Iragarkia ALHAOn jartzea.

Aldeko botoak: 10 (hamar): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), Dolores Ruiz Zuazo (PP), Diana Rubio Lafuente (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

6.2 Igerilekuen zerbitzu-kontratua.

Villanueva Gutiérrez jn.: Koherentzia dela eta, kontrako botoa emango dugu. Aurreko legegintzaldian ekimen bat aurkeztu genuen zerbitzua zuzenean Udalak aurkezteko, langileak lanerako kontratatzeko eta obrak eta zerbitzuen arloko koordinatzaileak koordinatzeko. Uste dugu merkeena eta eraginkorrena dela Udalak kudeatzea bere zerbitzuak.

Campos Latre jn.: Gustatuko litzaiuke kontratistari eskatzea Oiongo langileak aukeratzeko.

Alkate jn.: Udalak ezin du ezer esan hitzarmen kolektiboak langileei ezartzen dizkien betebeharrei buruz, baina kirol-zerbitzuetan, garbiketan eta ostalaritzan aplikatzen den hitzarmenak subrogazioa baliatzen du. Hortaz, esleipendunak aurreko esleipendunaren lan-kontratuak subrogatu behar ditu.

Aurrekariak:

1. Elorri kalean, udal-igerilekuaren eta beste kirol-instalazio batzuen zerbitzuaren kontratazioa erregulatzen duen baldintza ekonomiko eta administratiboen plegua.
2. Elorri kalean, udal-igerilekuaren eta beste kirol-instalazio batzuen zerbitzuaren baldintza teknikoen plegua.

Hau erabaki da:

1. La Espina kalean, udal-igerilekuaren eta beste kirol-instalazio batzuen espedientea onartzea; honako hauek hartzen ditu baitan: baldintza administratiboen plegua eta baldintza teknikoen plegua, prozedura irekia, ohiko izapidetzea, zenbait esleipen-irizpiderekin.
2. La Espina kalean, udal-igerilekuaren eta beste kirol-instalazio batzuen zerbitzuaren kontratazioa erregulatzen duen baldintza ekonomiko eta administratiboen plegua onartzea.
3. La Espina kalean, udal-igerilekuaren eta beste kirol-instalazio batzuen zerbitzuaren baldintza teknikoen plegua onartzea.
4. Kontratistaren hautaketa-prozesua deitzea eta esleipen-prozedura irekitzea.

Aldeko botoak: 8 (zortzi): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), Dolores Ruiz Zuazo (PP), Diana Rubio Lafuente (PP) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Aurkako botoak: 2 (bi): José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion).

Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) andrea irten egin da.

Azken puntua. Galderak eta eskaerak.

Alkate jaunak jakinarazi du Batzar Nagusiek gonbidatu egin dituztela Garoñako zentral nuklearra berriz irekitzearen aurkako ekitaldi sozial eta instituzionalera. Gonbidapena udalei, kontzejuei, kuadrillei, profesionalen elkarteei, kirol-elkarteei, kultur elkarteei, ekologistei, bizilagunei, sindikatuari, alderdi politikoei eta abarri egin zaie, martxoaren 19an zentral nuklearraren jarduera berrekiteko eman daitekeen baimenari aho batez uko egiten diogula agerian jartzeko. Gai hori lurraldeko gaurkotasuneko gai eztaba daezina da.

Gamarra jn.: Arabako Errioxako oliba-olioaren jaiari dagokionez, uste du pintxo-lehiaketak ez duela fundamentu askorik eta errota-arrantxoa ekimen pribatuko jarduera dela, aldeztatik erreserbatuta eskaintzen dena.

Tarragona jn.: Erakundeak bere garaian eskatu zuen arrantxoa egiten jarraitzeko, eta horregatik egiten da.

Rubio Lafuente and.: Ez al da bateraezina zinegotzi baten enpresa kontratatzea?

Alkate jn.: Kontratazioa ez du Udalak egiten. Oionen, ekitaldi nagusia koipez igurtzitako ogi-xerraren dastaketa da.

Tarragona jn.: Eta enpresa ez da zinegotzi horrena...

Villanueva Gutiérrez jn.: Garbiketako, kirol-zerbitzuetako eta ostalaritzako hitzarmenetan lan-subrogazioa bete behar bat da. Hori dela eta, txosten bat eskatu nahi diot Idazkaritzari INDESAK udaletxearen eta ikastetxearen garbiketa onartzearen lege-ondorioei buruz.

Ruiz Zuazo and.: Bizilagunak kexatu egin dira Elizaren atzean aparkatzen uzten delako.

Alkate jn.: salatzeak eskumena Ertzaintzak du. Helaraziko dut kexa.

Ruiz Zuazo and.: Poleja iturrian zegoen edukiontzia kendu da. Eta zakarrontzi bat jarri beharko litzateke.

Alkate jn.: Poleja iturrian edukiontzia gaizki erabiltzen zen; kasuren batean ibaian agertu da. Jakinarazi nahi dizuet kartel bat jarriko dela, autoak garbitzea debekatuta dagoela adierazteko.

Jorratzeko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:35ean (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2016ko martxoaren 23an
Udaleko idazkaria:

Presidenteak OE:

El acta se redacta en el idioma en el que se desarrolla la sesión, castellano y se traduce al euskera por Euskalgintza Bulegoa S.L.